

Jakes CASAUBONentzat

Oihanetik itsasora, naturatik kulturara,

Jakes Casaubon dugu euskal goaren ortzadarra.

Beti ikasten eta besteri irakasten, hori da Jakes aipatzerakoan, gogorat heldu zaidan lehen erranaldia.

Ez ditut xeheki erranen zenbat eta zenbat lan baduen eginik euskal kulturaren alde, luzeegia bailiteke zerrenda, bainan aipatzen ahal nituzke zure ikerketak, argitalpenak, pilotarentzat eman gau eta egunak, emankizun eta mintzaldiak, etabar luze bat. Besteak beste, zinez preziatu dut zure azken obra, «*Euskal pilotaren gogoa eta artzain jokoak*» izenekoa, hau Pierre Sabalorekin idatzi duzuna, mendietako xoko-moko guziak ikertuz, hango aztarna ttipi-ttipienak bildu nahian.

Pilotari, bidaiari, pentsalari, sukaldari, arrainen lagun maitagarri: Jakes Casaubon jaunak miresten du oroz gaintik Euskal Herria, Euskal Herriko gizon eta emazteak, eta erran gabe doa, euskara, gure hizkuntza, betidanik aldarrikatzen baitu, zuzen den bezala, euskara dela euskal kulturaren harroina, herriaren bihotza.

Ahal dudalarik, eta maiz autoan naizenean, harat eta hunat ibilki, loriaturik egoiten naiz, Jakesen entzuten, hain famatua bilakatua den «*Gure bazterrak*» emankizunari beha, Lucien Etxezaharretarekin ezin berexizko kuple bat egiten dutelarik, hemendik galdera, hortik ihardespena, handik artzain edo laborari baten lekukotasuna. Horiek oro euskara ximple bezain jorian. Frangotan funtsean, nahi nuke gelditu eta Jakesen aho zilotik jalgi lore, arbola, pentze, mendi mazela, ibai edo haranen izenak berehala paper baten gainean idatzi, hitz horiek erran eta erran behar baitira, ez daitezen gal bainan aitzitik betirako sar gure gogo-bihotzetan.

Bai, Jakes Casaubon, daukazun jakinduria guzia ez duzu zuretzat atxikitzen. Beti ari zira hedatzen, helarazten gure haur eta gazteeri, eta nik hori ederresten dut, zu eta zu bezalako anitz behar baitugu oraino, gure herriaren hobeki ezagutzeko, atzokoan geroaren prestatzeko, guhaurek lehenik euskaldunek, bainan ere kanpotik datozenek.

Azkenik, zure arraileria, perla bezain fina, ez ote da preziagarria, irria bilakatua delarik hain urria?

Euskal Kultur Erakundearen izenean, bainan ere adiskide bezala, eskaini nahi dizut oparitzo hau, xumea, zu bezala, bainan bihotzaren xoko-xokotik helarazi nahi dizudana.

Esker mila Jakes, eta segi ezazu zure begi bipila bazter ederrenetan alharazten.

Pantxoa ETCHEGOIN

Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria

2005-04-25ean - Biarritz

25-04-2005 - Biarritz